



San Blas

San Blas opila

1 kg irin
500 g azukre
6 arrautza
1,5 royal poltsatxo hautsa
Anis esentzia pote 1
200 g txerri gantza edo gurina

Geruza zuriko osagaiak

Glass azukrea (300 gr)
Limoi tanta batzuk eta anisa

Urtu gurina eta nahastu gainerako osagaiekin: oratu,
oratu, oratu eta oratu.

Orea egindakoan, utzi geldirik (ahal dela, bi ordu inguru) eta, ondoren,
eman nahi duzun itxura, sartu labe oso beroan, gutxi gorabehera 20
minutuz (begiratu noizean behin)

Geruza zuria: 2 arrautza zuringo elur-puntuan, eta horiei glass azukrea
(300 gr) gehituko diegu, limoi tanta batzuk eta ontzian geratu zaigun
anis tantatxoren bat.

Opila egin ondoren, pasta zuri honekin estali eta lehortu arte itxaron.